



## **3-BAZKIDE GARRANTZITSUAK**

Mood Pet garatzeko eta gure produktua merkatura eramateko, laguntzaile desberdinekin lan egingo dugu. Haiek lagunduko digute teknologia hobetzen, lepokoa egiten, produktua saltzen eta marka ezagutarazten. Horrela, proiektua indartsuagoa izango da eta bezero gehiagorengana iritsiko gara..

### **3.1 Aliantzak eta lankidetzak**

- Teknologia- eta diseinu-enpresekin elkarlanean arituko gara gure lepoko adimenduna diseinatzeko eta kolorea aldatzen duen sistema ondo funtziona dadin.
- Albaitariak eta etologoak ere oso garrantzitsuak izango dira, haiek lagunduko digutelako maskoten emozioak zehaztasunez interpretatzen eta datu fidagarriak jasotzen.
- Horrez gain, maskoten dendak eta albaitaritza klinikak gure produktua banatzeko eta jendeari gomendatzeko aliatu onak izango dira.
- Sare sozialetako influencer-ek eta maskoten komunitateek Mood Pet marka ezagutarazten lagunduko dute eta horri esker bezero gehiago erakarri ahal izango ditugu.

### **3.2 Hornitzaile bereziak**

Material adimendunen hornitzaileekin lan egingo dugu, haiek emango dituztelako sentsoreak eta LED teknologiak, gure lepokoak kolorea alda dezan. Bestalde, material ekologiko eta iraunkorrak egiten dituzten fabrikatzaileek produktua kalitatezkoa, eroso eta iraunkorra izatea bermatuko dute.

### **3.3 Bezero gehiago eta salmenta gehiago lortzeko bazkideak**

Amazon bezalako plataforma handiek gure produktua leku gehiagotan ikusteko aukera emango dute, eta horri esker bezero gehiago lortuko ditugu. Publizitate eta marketin agentziekin ere lan egingo dugu gure enpresa, gure marka eta logoa ezagutarazteko eta sare sozialetan gure produktua iragarriko dugu.



### 3.4 Lankidetza estrategikoak

Teknologia-enpresek gure aplikazioa garatzen lagunduko dute eta datuak modu seguruan gordetzen direla ziurtatuko dute. Gainera, maskoten aseguru-etxeekin edo antzeko beste zerbitzuekin elkarlanean aritzeak aukera emango digu gure lepokoa haien zerbitzuekin lotzeko, eta horrela bezeroei balio handiagoa eskaintzeko.